

GIB/HIES ETA SEXU BIDEZ TRANSMITITUTAKO BESTE GAIKOTASUNAK



gazteentzako gida



Osakidetza
Servicio vasco de salud

www.sida-hies.net

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ARGITARALDIA: 2003ko Ekainan.

© Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa.

ARGITARATZAILEA: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.


EGILEA: Hiesari Aurrea hartu eta Kontrolatzeko Egitasmoa. Osakidetza.

DISEINUA: Pelcons Publizitatea.

MARRAZKIAK: Carlos Azagra.

IMPRIMAKETA: Gestingraf.

D.L.: BI-2183-99



GIBak nola jokatzen du?

Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIBak) linfozitoak erasotzen ditu eta hauek gure defentsa-sistemaren zuzendariak dira. Gibaren aurka sortzen diren antigorputzak ez dira gauza birusak hiltzeko.

Hasiera batean GIBa lo antzean dago linfozitoen barruan eta infektatutako immunitate-sistemak lanean jarraitzen du itxuraz bere normaltasunean. Urteen buruan eta ondo zehaztu gabeko arrazoiengatik GIBa aktibatu, esnatu egiten da eta linfozitoen barruan oso azkar ugaltzen da, **linfozitoak desegin eta birus pila bat askatzen da; hauek beste linfozitoak infektatuko dituzte**. Horrela GIBak sistema inmunea gero eta gehiago makaldu eta zera lortzen du: gure organismoak, zenbait germen eta minbizi-motaren aurka, behar bezala jokatzeko ezina.



zer da hiesa?

Hiesa gaixotasun bat da, **GIBak** sortua (hiesaren birusa ere esaten zaio); pertsona batetik bestera transmititu daiteke.

Birusa, **partikula infekzioso txiki bat da, organismoko zelulen parasito -ez bestela- bizi daitekeena eta zeluletan bertan ugaltzen dena**. Organismotik kanpo nekez bizi daiteke eta oso denbora laburrean; desinfektatzaileak (lixiba) eta beroa (60° baino gehiago) GIBa desegiteko gauza dira.

nola jakin pertsona bat GIBak infektatuta dagoen?

Odol analisi espezifiko baten bidez. Analiak pertsonak GIBaren aurkako antigorputzak dituen detektatzen du. Itxuragatik ezin diogu inori igarri infektatuta dagoen.

Antigorputzak detektatzen badira probaren emaitza positiboa da, eta pertsona hori seropositiboa, GIBaren eramailea. Antigorputzik detektatzen ez bada proba negatiboa da eta pertsona seronegatiboa.

Infektatu ondoren pertsona gutxi gora behera hiru hilabete egon daiteke antigorputzik sortu gabe. Beraz, **hiru hilabetez itxaron behar da analisi hori egiteko**, zeren lehenago eginez gero probak negatibo eman baitezake, pertsona infektatuta egonda ere.





zer esan nahi du seropositibo izateak?

- Pertsona GIBak infektatu duela.
- Infekzioa bizitza osorako da.
- Arrisku-praktika batzuen bidez beste pertsoneri transmititu dakieke.



nola garatzen da GIBaren infekzioa?

Hasieran ez da inongo sintomarik agertzen, birusa lo antzean dago eta ez du immunitate-sistema suntsitu. **Pertsona eramaile asintomatikoa** ① da.

Infektatu eta denboraren buruan, normalean urte batzuen bueltan, **pertsona batzuk GIBarekin erlazionatutako sintomak izaten hasten dira**; birusa linfozitoak desegiten hasi eta defentsa-sistema makaltzen hasi baita. **Sintoma horiek** ② (sukarra, beherakoa, pisu galtzea, gongoil linfatikoen tamaina handitzea, etab.) ez dira hiesaren espezifikokoak, beste arrazoi askorengatik ager daitezke.

Hiesa ③ GIBaren infekzio-modu larriena da. Pertsona batek infekzio oportunistak edo minbizi-mota konkretu batzuk garatzen dituenean diogu hiesduna dela.

Guztiok bizi gara mikroorganismo inguraturik, normalean gaixotasunik sortzen ez dutenak, gure immunitate edo defentsa-sistemak menderatzen dituelako. **Defentsa-sistema oso makala denean ezin ditu menderatu**. Mikroorganismo horietariko batzuek gure defentsen makalaldia, "oportunitatea" aprobetxatzen dute organismoa inbaditzeko, "infekzio oportunistak" sortzeko.



sendatu daiteke hiesa?

Gaur egun oraindik ez; asko aurreratu bada ere tratamenduan, ez da lortu GIBa behin betiko desegingo duen medikamenturik.

GIBak aurrera ez egiteko asmoz eretrovirusaren kontrako medikamentuak erabiltzen dira. Normalean medikamentu-koktelak erabiltzen dira, bi edo hiru farmako nahastuta. Koktel hauek birusaren ugaltzea aldi baterako blokeatzen dute, eta behin betiko desegiten ez badute ere gaixoen bizitza luzatu eta hobetu egiten dute.



nola transmititzen da GIBa?

Hona hemen zeintzuk diren beste pertsonak infektatzeko adinako birus-kontzentrazio duten organismoaren jariakinak:

- Odola
- Semena
- Jariakin baginalak

Inor infektatzeko, birusa duten odola, semena edo baginako jariakinak sartu behar dira organismoan; hau da, **kontaktu zuzen eta sakona eduki behar da infektatutako pertsona edo gauzein** (preserbatiborik gabeko harreman sexualak zakila sartuz, injekzioa infektatutako xiringekin).

odol bidezko transmisioa

■ XIRINGAK EDO TRESNA PUNTADUN EDO EBAKITZAILEAK PARTEKATZEAGATIK

Xiringek eta orratzek birusa transmiti dezakete, partekatzen badira. Hori gertatzen da toxikomanoen artean, droga prestatzeko erabiltzen diren tresnek ere transmiti dezakete.

Infektatutako beste tresna ebakitzaila-zorrotz batzuek ere transmiti dezakete (bizarra mozteko xaflak, belarriak zulatzeko orratzak, tatuajeak egitekoak, akupunturakoak etab.).

■ AMAK SEME-ALABEI

Haurdunaldian, erditzean edo neurri gutxiagoan edoskitzean, amak haurra infektatu dezake. Arrisku hau asko gutxitu da gaur egun, erretrobirusaren kontrako tratamenduei eskerrak. Tratamendu hauek haurdunaldian eta erditzean administratzen dira.

■ ODOL TRANSFUSIO ETA PRODUKTUEN BIDEZ

Gaur egun gertatzea oso arraroa da, odol guztiaren kontrola derrigorrezkoa baita.



transmisio sexuala



Zakil-sartzearekin (baginatik, ipurditik) egiten diren zauri mikroskopikoen bidez gertatzen da birusaren transmisioa. Horrela infektatuaren semen edo baginako jariakinetan dagoen birusa sexu-lagunaren odolera pasatzen da.

Zauri edo lesio mikroskopikoak egitea errazten duten sexu-praktikek arriskua areagotzen dute; zakila ipurditik sartzea, esaterako, bertako muki-mintza askoz hauskorragoa baita baginakoa baino.


Praktika aho-genitalek (felazioa, cunnilingusa) GIBa transmititu dezakete ahoak semen edo jariakin infektatuekin kontakturik baldin badu: arriskua askoz txikiagoa da zakil-sartzearekin baino.

Kontuan eduki:

■ Bikoteko batek STG (Sexu bidez Transmititutako Gaixotasun) bat izanez gero, GIBaren transmisio-arriskua asko handitzen da.

■ Zenbat eta babesik gabeko harreman gehiago orduan eta infekzio arrisku handiagoa; harreman bakar nahikoa da, lehenengoan gerta daiteke.





neurri prebentiboak: sexu segurua

Sexu segurua: arriskurik gabeko praktikak eginez (musuak, laztanak, elkar masturbatzea) alde batetik, eta bestetik zakil-sartzea eginez gero preserbatiboa egoki erabiliz (pertsona infektatuekin edo dauden edo ez dauden ez dakitenekin).

Berriz ere: itxuragatik ezin dugu jakin pertsona bat infektatuta dagoen edo STGren bat (Sexu bidez Transmititutako Gaixotasun) duen.



ARRISKU HANDIKOAK • Zakil-sartzea (baginatik, ipurditik)

NOLABAITEKO ARRISKUA • "Felazioa" (praktika aho-genitala)
• "Cunnilingusa" (praktika aho-genitala)

ARRISKURIK GABEAK • Laztanak
• Ahozko musu edonolakoak
• Elkal masturbatzea






preserbatiboa ondo nola erabili

- 1 Preserbatiboaren iraingitze-dataarekin kontuz.
 - 2 Ez urratu azazkal, hortz, eratzun eta abarrekin.
 - 3 Preserbatiboa **zakila tente dagoela ipini**, edozein kontaktu genital izan baino lehen.
 - 4 **Zakilaren orporaino sartu-zabaldu**; estutu punta lehenago haizea joan dakion.
 - 5 Lubrifikatzaileak erabiltzekotan, uretan urtugarriak erabili (glizerina) eta ez koipetsuak (baselina, olioak) preserbatiboari kalte egiten diote eta.
 - 6 Zakil-sartzeak dirauen denbora guztian erabili. **Kentzerakoan, behealdetik eutsi erekzioa jaitsi baino lehen eta gero korapilatu.**
 - 7 Zakil-sartze bakoitzean aldatu.
 - 8 Zaborretara bota korapilatuta, ez komunera.
 - 9 Bero, argi eta gehiegizko hezetasunetik babestu behar dira hondatu egiten dira eta.
- **ESKURA EDUKI BEHAR DIRA!**





emakumezkoentzako preserbatiboa

Emakumeentzako preserbatiboa ere hesi eraginkorra da hiesaren birusarentzat. Gizonentzako bezala, behin bakarrik erabiltzeko da.

Gogoratu! Zakil-sartzeak egiten direnenan preserbatiboak (gizonena zein emakumeena) ondo erabiltzea oso eraginkorra da STG (Sexu bidez Transmittutako Gaixotasun) guztientzat (hiesa barne).

pertsona seropositiboekin bizitzea

GIBa EZ DA EGUNEROKO HARREMANEKIN TRANSMITITZEN

Hiesa azaltzeak gizartean beste izurrite bat sortu du, beldur, mito, arbuio eta pertsona seropositiboenganako diskriminazio izurritea. Izurrite irrazional hau informatuz eta beste bizimoduak errespetatuz bakarrik senda daiteke.

GIBa ez da transmititzen haizearen bidez edo infektatuek erabilitako tresnen bidez. Beraz, birusa ez da transmititzen ez tul edo doministikuen bidez: ez eskua edo musua emateagatik; ez lababoak, telefonoak, mahai-tresnak edo edontziak partekatzeagatik, ez eta kiroletan gertatzen diren kontaktuengatik, igerileku publikoak erabiltzeagatik, etab.

Hiesa gizarte osoaren arazoa da. Aske eta erantzuleak gara babesteko; baita informazioa jaso eta erabiltzeko ere.

informazio zehatzagoa

Hiesaren Prebentzio eta Kontrolerako Plana: 943 006464

Arabako Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarra: 945 257766 (Vitoria-Gasteiz)

Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarra: 94 4160055 (Bilbo)

Gipuzkoako Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarra: 943 290722 (Donostia)

Hiesaren Aurkako Borrokarako Elkarte Hiritarra: 94 4221 240 (Bilbo)

Oiartzungo Hiesaren Aurkako "Harribeltza" Elkarte: 943 493544 (Oiartzun)

Bermeoko "Txo-Hiesa": 94 6179171 (Bermeo)



zer dira sexu bidez transmititutako gaixotasunak?


Sexu bidez Transmittitutako Gaixotasunak (STG) **jarduera sexualaren bitartez** (bagina, uzki edo aho bidezko harremanak, eta harreman intimoak) **kutsatzen diren infekzioak dira**. Infekzio horiek sexu-organoetan batez ere hazten diren bakterioak, birusak, onddoak edo parasitoak eragiten dituzte.

STG gehienak modu erraz batean prebenitu eta tratatu daitezke. **Modu egokian tratatzen ez badira, ondorio larriak eragin ditzakete.**

Ez dago STGentzako txertorik (B hepatitisarentzat izan ezik). **STGak berriro ager daitezke, hots, ez dute immunitaterik sortzen.**

Zenbait faktorek STGen zabalkundea errazten dute, hala nola:

- Sintomak ez ezagutzea eta **informazio-falta**.
- Batzuetan sintomak ez dira nabarmentzen, eta **ez dira erraz antzematen**.
- STGak ezkutuan gordetzen dira, eta **ez da neurririk hartzen**.
- **Aho bidezko antisorgailuak (STGen aurka ez dute babesten)** erabiltzea, hesi-metodoen ordez (babesa ematen dute).




nola jakin nezake STG bat daukadan?

Babesik gabeko sexu-harremanak izan badituzu, STG bat daukazu jakiteko modu bakarra medikuarengana joatea da, eta horretarako dauden probak egitea. Horietako infekzio askok ez du ageriko sintomarik.

zeinek izan lezake sexu bidez transmititutako gaixotasun bat?

Sexualki aktiboa den edozein pertsonak izan dezake STG bat.





zein dira STG garrantzitsuenak?

■ **GONORREA:** Blenorragia edo gonokozia izena ere ematen zaio. Sintoma arruntenak ondokoak dira: **baginako fluxua gehitzea, jariakinak zakilean edo erresumina pixa egitean.** Kasuen %50ean ez dago batere sintomarik. Bagina, uzki edo aho bidezko sexu-harremanetan kutsatzen da; beraz, genitalei ez ezik, ondesteari eta eztarriari ere erasan diezaieke. Antibiotikoekin tratatzen da.

■ **CHLAMYDIA:** Gonorrearen tankerako sintomak ditu, eta, gaixotasun hori bezala, **bagina, uzki eta aho bidezko sexu-harremanetan kutsatzen da.** Tratamendua antibiotikoekin egiten da. Kasuen %50etik gora ez dauka inolako sintomarik.

■ **SIFILIA:** STG hau konplexua da, eta urte askotan zehar sintoma desberdinak eragiten dituen bakterio batek sortzen du. **Hasieran, minik ematen ez duen ultzera bat azaltzen da ukimen-gunean -genitalak, ahoa edo uzkia- eta zenbaitetan ez da ikusten begien bistan.** Tratamendua antibiotikoekin egiten da.



■ **HERPESA ETA GENIALETAKO GARATXOAK:** Bagina, uzki edo aho bidezko sexu-harremanetan eta lesionatutako larruazalarekin kontaktu intimoa izatean transmititzen diren birusek eragiten dituzte gaitz hauek. **Baba txiki minberak edo azalore-itxurako garatxoak sortzen dituzte barneko edo kanpoko genitalan eta uzkiaren inguruan.** Ez dute tratamendu sendagarriarik; ondorioz, aldizkako azterketak egin behar dira, konplikaziorik gerta ez dadin. **Birus horiek egoteak zerikusia izan dezake tumoreak sortzearekin, batez ere, umetokiaren lepoko minbiziarekin.**

■ **B HEPATITISA:** Gibela modu kronikoan erasan dezakeen birus batek eragiten du **B hepatitisia.** Batzuetan, zirrophia eta gibebeko minbizia ere sortu ditzake. Sexu eta odolaren bidez edo amarengandik haurraren bidez transmititzen da. Heldu askok ez dute inolako sintomarik infekzioaren uneetan. **B hepatitisaren kontra badago txerto eraginkor bat, eta, gaur egun gure erkidegoko txerto-egutegiaren barruan sartuta dago.**



■ **GIB/HIESa:** Koitodun sexu-harremanak GIBa kutsatzeko **arriskuzko jarduerak dira.** Aho bidezko harremanetan arriskua txikiagoa den arren, kutsa daiteke. Beste transmisio-bide batzuk hauek dira: odola eta amarengandik haurraren bidez. **Infektatu ondoren, gehienetan, ez da sintomarik azaltzen urteetan.**

zer konplikazio sor litzakete STGek modu egokian tratatu ezean?

- Antzutasuna.
- Gorputzeko beste organo batzuei (artikulazioak, bihotza edo nerbio-sistema) erasaten dieten **infekzio larriak**.
- Haurdun daudenak kutsatuz gero, abortuak, pisu gutxiko jaioberriak eta erditze goiztiarrak.
- Zenbait kasutan jaioberriei kutsa dakieke.
- **Tumore batzuek** zerikusia dute herpesarekin eta genitaleko garatxoekin; beraz, aldizkako azterketak egin behar dira.

Baginako fluxua gehitzea, zakilean jariakinak izatea, pixa egitean erresumina sentitzea edo genialetan mina edo lesioak izatea STG bat dagoen sintoma izan daiteke.



gizonezkoentzako preserbatiboaren alternatibarik ba al dago?


Bai. Emakumezkoentzako preserbatiboa gizonezkoentzako bezain eraginkorra da.

Are gehiago, zenbait pertsonarentzat egokiagoa izan liteke.

preserbatiboak erabiltzeak babesten al du sexu bidez transmititutako gaixotasunetatik?

Sexualki aktiboak diren pertsonentzat preserbatiboak modu egokian erabiltzea STGak prebenitzeko neurri eraginkorrena da. Herpesaren eta genitaleko garatxoaren kasuan, kutsatzeko arriskua gutxitu egiten du, baina ez du zeharo kentzen. Erabat eraginkorra izango bada, sexu-harreman guztietan erabili behar da, hasieratik bukaera arte.





STG bat baldin badaukat, esan behar al diot nire bikotekideari?

STG bat baldin badaukazu, beharrezkoa da zure bikotekideari edo bikotekideei jakinaraztea, azterketa bat egin diezaieten, eta eurek ere infekzioa izanez gero, modu egokian tratatu ahal izateko.

zer egin behar dut STG bat dudala uste badut?

STG bat duzula uste baduzu, zure familia-medikuarekin jarri harremanetan edo, nahiago baduzu, hauetako zentro batera joan zaitezke:

- STGen Zerbitzua. Bilbo. Tel.: 946 00 69 69
- STGen Kontsulta. Donostia. Tel.: 943 00 64 64

